

GIPUZKOA
IKASKUNTZA
EMOZIONALA
ETA SOZIALA

IKASKUNTZAKO IBILBIDEA

GAITASUN SOZIOEMOZIONALEN IKASKUNTZA

HEZKUNTZA ARLOA

Berrikuntzako eta Jakintzaren Gizarteko Departamentua

Gipuzkoako Foru Aldundia

Lanketa:

Prestakuntza-ibilbidearen eta materialen proposamena: Kultura, emozio eta jarreraren ikerketa-talde bateratua.

Ebaluazioa: Emoiker S.Coop.

SARRERA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntzako eta Jakintzaren Gizarteko Departamentua 2004. urteaz geroztik sustatzen du “Gipuzkoa ikaskuntza emozionala eta soziala” ekimena hezkuntza- arloan.

Aurkezten dugun ikaskuntza-ibilbidea Departamentuak azken urteotan martxan jarri dituen ekintzen jarraipena da bai Gipuzkoa emozionalki adimentsu bilakatzeko sustapenean, bai adin goiztiarrenetan gaitasun sozioemozionalak lantzeko ahaleginetan. Aldi berean, orain arte garatutako esperientziaren eta ikaskuntzaren ondorioa da.

Dokumentu honetan ezagutzera ematen da hezkuntza-arloan irakasleek gaitasun sozioemozionalak eskurtzeko eta ikasgelara eramateko sortu den ikaskuntza-ibilbidea, eta bertan ezartzen dira ibilbidea garatzeko ikaskuntza-mailak, euren helburu eta ekintzak dituztenak.

1. Maila: Emozioetan eta Kudeaketa emozionalean trebakuntzan esku-hartzea.
2. Maila: Ikastetxean Adimen Emozionala ezartzeko trebakuntzan esku-hartzea.
(2.A Aplikazioa ikasgelan eta 2.B Hezkuntza taldeetan erregulazio emozionala)
3. Maila: Ikastetxe proiektua. Ikastetxeetan Adimen Emozionala integratzea.

Ikaskuntza-ibilbidea xehetasunez azaldua:

1.	PRESTAKUNTZAKO ESKU-HARTZEA: EMOZIOAK ETA EMOZIOEN ERREGULAZIOA 40 ordu	
PRESTAKUNTZAKO ESKU-HARTZEA: ADIMEN EMOZIONALAREN APLIKAZIOAK IKASTETXEAN		
2.A.1.	APLIKAZIOA IKASGELAN: 3-4 URTE 20 ordu	2.B HEZKUNTZA TALDEETAN ERREGULAZIO EMOZIONALA 20 ordu
2.A.2.	APLIKAZIOA IKASGELAN : 5 URTE 20 ordu	
2.A.3.	APLIKAZIOA IKASGELAN : 6-8 URTE 20 ordu	
2.A.4.	APLIKAZIOA IKASGELAN : 8-10 URTE 20 ordu	
2.A.5.	APLIKAZIOA IKASGELAN : 10-12 URTE 20 ordu	
2.A.6.	APLIKAZIOA IKASGELAN : 12-14 URTE 20 ordu	
2.A.7.	APLIKAZIOA IKASGELAN : 14-16 URTE 20 ordu	
2.A.8.	APLIKAZIOA IKASGELAN : Batxilergoa eta Hezkiketa Zikloak (erdi mailakoak) 20 ordu	
3.	IKASTETXE PROIEKTUA :ADIMEN EMOZIONALAREN GAIA IKASTETXEETAN INTEGRATZEA 30 ordu	

IKASKUNTZA IBILBIDEA – HEZKUNTZA ARLOA

Jarraian aurkezten da prestakuntzako esku-hartze prozesua, xehetasunez azaldua:

1. maila: Prestakuntzako esku-hartzea: Emozioak eta Emozioen Erregulazioa

AUTORREGULAZIO EMOZIONALA

40 ordu

Helburuak:

Emozioei eta emozioek ematen duten informazioari buruzko informazioa ematea, adimenaren erreakzioak eta jokabide joerak hainbat ikuspuntutatik analizatuta. Prozesu horien garapen sistemak ezartzea, proposatutako helmugekin loturik.

Gai izatea adibide espezifikoek bitartez deskribatzeko oinarrizko emozioen ohiko aurrekariak eta erreakzio fisikoak eta komunikazio, adimen eta jokabide mailakoak.

Emozioak eta informazioa, haiekin lotura duten pentsamenduekin eta izandako jokabideekin lotzea, emozioen esanahiak interpretatzea, eta aztertzea emozioak erregulatzeko zein diren estilo onuragarriak, zein anibalenteak eta zein ez diren onuragarriak.

Egin beharreko lana:

- Pertzepzioa: kontzientzia sozio-emozionala eta adierazpen emozionala.
- Errazte emozionala: gure pentsamenduak lagun ditzaketen sentimenduak sortzeko gaitasuna.
- Ulertze emozionala: sentitzen duguna geure pentsamenduan integratzea eta aldaketa emozionalen garrantziaz jabe izatea.
- Erregulazio emozionala: emozio positiboak nahiz negatiboak modu eraginkorrean erabiltzea eta zuzentzea.

Edukiak:

- Prototipo emozionalak. Oinarrizko emozioek –poza, tristura, beldurra eta haserrea- emandako informazioa.
- Hiztegi emozionala eta adierazpen emozionala.
- Adimen eta jokabide mailako joerak emozioen aurreko erreakzioetan.
- Zeregin mentalak bereizteko estimulu gisa emozioek duten gaitasuna.

- Informazio emozionalaren, pentsamenduen eta portaeren arteko lotura.
- Emozio konplexuak eta emozio arteko trantsizioa.
- Erregulazio emozionala.
- Ikaskuntza emozionala bizi-zikloaren etapa ezberdinetan, batez ere, haur eta nerabe garaietan, eta garapenarekin duen lotura.
- Adimen emozionala hezkuntzaren testuinguruan.
 - o Ikasgela harremanen testuinguru gisa
- Adimen emozionala familiaren testuinguruan.
 - o Familia eta garapen afektiboa

Helburu taldeak:

Gipuzkoako ikastetxeetako zuzendaritza taldeko kideak, irakasleak eta tutoretza nahiz orientazio lanetan aritzen diren pertsonak.

Ebaluazioa:

Maila honetan hauek dira betebeharreko galdeketak:

- Pretest –a (prestakuntzako esku-hartze prozesua hasi aurretik)
- Postest-a (prestakuntzako esku-hartze prozesua bukatzerakoan)
- Asetasuna (prestakuntzako esku-hartze prozesua bukatzerakoan)
- Jarraipeneko postest-a (prestakuntzako ikastaroa bukatu eta 2-3 hilabetetara)
- Ikastetxeko ikasleei ebaluazioa – lehen hezkuntzako 6. maila, DBHko 4. maila, Batxilergoko eta heziketa zikloetako 2. maila (ikasturtea bukatzerakoan)
- Parte hartzaileei elkarrizketak (lagin adierazgarria) (ikasturtea bukatzerakoan)

Kontuan hartu beharreko alderdiak:

Iraupena: 40 ordu

Taldeak: 8-10 pertsona

Tenporalizazioa: Astean bi orduko bi prestakuntza saio.

2. maila: Prestakuntzako esku-hartzea: Adimen emozionalaren aplikazioak ikastetxean

2.A APLIKAZIOA IKASGELAN

2.B HEZKUNTZA TALDEETAN ERREGULAZIO EMOZIONALA

2.A APLIKAZIOA IKASGELAN

Zortzi ikastaro aurreikusten dira, hezkuntza etapa desberdinetako ikasleekin lan egiten duten irakasleei eta tutoretza nahiz orientazio lanetan aritzen diren diren pertsonen zuzendutakoak:

2.A.1 : 3-4 urte

2.A.2 : 5 urte

2.A.3: 6-8 urte

2.A.4 : 8-10 urte

2.A.5 : 10-12 urte

2.A.6 : 12-14 urte

2.A.7: 14-16 urte

2.A.8 : Batxilergoa eta heziketa zikloak (erdi mailakoak)

Helburuak

Adimen Emozionala ikasgelan lantzeko gaitasuna izatea, hezkuntza sistemarako diseinatutako material espezifikoak erabiliz, taldeko edo banakako esku-hartze egitaratuak gauzatu, planifikatutako lan metodologia erabiliz, eta helburu espezifikoak nahiz operatiboak ezarriz, ikasleek gaitasun emozionalak eskuratzeko eta ikasteko behar dituzten tresnak bultzatze aldera, eta, betiere, ikastetxeak zehaztutako ikasleen garapen oso eta curricularra garatzeko proiektuaren barruan, zentroaren beste faktore eta baliabide batzuk ere erabilia.

Egin beharreko lana:

- Erregulazio emozionala: emozio positiboak nahiz negatiboak modu eraginkorrean erabiltzea eta zuzentzea.
- Adimen Emozionala ikasgelan aplikatzea, metodologia eta material espezifikoak erabilia.

Lan edukiak:

- Erregulazio emozionala: norberaren eta besteen emozioak:
 - o Egoerei aurre egiteko baliabideak, erregulazio emozionalerako onuragarriak direnak.
- Erregulazio emozionala eta hezkuntzaren testuingurua:
 - o Aplikatzeko metodologia
 - o Ikaskuntza prozesuak garatzea Adimen Emozionalaren alorrean
 - o Adimen Emozionalaren alorreko hezkuntza materialak aplikatzeko gaitasuna lortzea.

- Lan simulazioak.

Helburu taldeak:

Gipuzkoako ikastetxeetako irakasleak eta tutoretza nahiz orientazio lanetan aritzen diren pertsonak

Ebaluazioa:

Maila honetan hauek dira betebeharreko galdeketak:

- Asetasuna (prestakuntzako esku-hartze prozesua bukatzerakoan)
- Erdiegituratutako galdeketa (ikasturtea bukatzerakoan)
- Ikastetxeko ikasleei ebaluazioa – lehen hezkuntzako 6. maila, DBHko 4. maila, Batxilergoko eta heziketa zikloetako 2. maila (ikasturtea bukatzerakoan)
- Parte hartzaileei elkarrizketak (lagin adierazgarria) (ikasturtea bukatzerakoan)

Kontuan hartu beharreko alderdiak:

Iraupena: 20 ordu hezkuntzako etapa bakoitzean (ziklo bakoitzaren arabera)¹

Taldeak: 8-10 pertsona

Tenporalizazioa: Astean bi orduko bi prestakuntza.

Zortzi ikastaro aurreikusten dira, adin hauek dituzten ikasleekin lan egiten duten irakasleei eta tutoretza nahiz orientazio lanetan aritzen diren pertsonen zuzendutakoak: 3-4 urte; 5 urte; 6-8 urte; 8-10 urte; 10-12 urte; 12-14 urte; 14-16 urte; batxilergoa eta heziketa zikloak (erdi mailakoak)

2.B HEZKUNTZA TALDEETAN ERREGULAZIO EMOZIONALA: Talde lana eta taldeen arteko komunikazioa.

Helburuak: Erregulazio emozionalari buruzko prozesuak ezartzeko gaitasuna izatea, pertzepzioa, ulermena eta errazte emozionala erabilia, emozioak eraginkortasunez erabiliz eta zuzenduz, betiere, lan harremanei lotutako erregulazio emozionalaren alorrean egoerei aurre egiteko baliabideak erabilia.

Taldeen arteko harremanak eta hezkuntza erakundeetarako erregulazio emozionalaren prozesuak garatzeko behar diren oinarritzko bi gaitasunak ikastea. : Talde lana eta pertsonarteko komunikazioa.

Egin beharreko lana:

- Erregulazio emozionala: emozio positiboak nahiz negatiboak modu eraginkorrean erabiltzea eta zuzentzea. Erregulazio emozionala, ikastetxean pertsonen kudeaketa garatzeko tresna gisa, Ikastetxe Planaren diseinuari eta helburuei jarraituz.
- Kontzeptualizazioa eta gaitasunak eskuratzea.

Lan edukiak:

- Taldearen gatazken kudeaketa eta taldearen erregulazio emozionalari buruzko estrategiak ezagutzea.
- Talde arteko prozesuak modu eraginkorrean erregulatzeko eta kudeatzeko oinarritzko gaitasunak eskuratzea:
 - Talde lana.
 - Pertsonarteko komunikazioa
- Beste pertsonen emozioak eraginkortasunez erregulatzeko.

Helburu taldeak:

Gipuzkoako ikastetxeetako zuzendaritza taldeko kideak, irakasleak, eta tutoretza nahiz orientazio lanetan aritzen diren langileak.

Ebaluazioa:

Maila honetan hauek dira betebeharreko galdeketak:

- Asetasuna (prestakuntzako esku-hartze prozesua bukatzerakoan)
- Erdiegituratutako galdeketa (ikasturtea bukatzerakoan)
- Ikastetxeko ikasleei ebaluazioa – lehen hezkuntzako 6. maila, DBHko 4. maila, Batxilergoko eta heziketa zikloetako 2. maila (ikasturtea bukatzerakoan)
- Parte hartzaileei elkarrizketak (lagin adierazgarria) (ikasturtea bukatzerakoan)

Kontuan hartu beharreko alderdiak:

Iraupena: 20 ordu.

Taldeak: 8-10 pertsona Pertsonak elkarrekiko mendekotasun nahiko izan beharko dute taldea osatzerakoan

Tenporalizazioa: Astean bi orduko bi prestakuntza saio

3. maila: Ikastetxe proiektua (Adimen Emozionalaren gaia ikastetxeetan integratzea)

INTEGRAZIO CURRICULARRA

30 ordu

Helburuak:

Ikastetxe proiektu bakoitzaren arabera, Adimen Emozionalaren curriculumak ikastetxeetan integratzeko antolaketa lanaren prozesua, helburuak eta xedea ezartzea.

Urte aniztan egiteko lan plan bat ezartzeko jarraibideak diseinatzea, Adimen Emozionala ikastetxearen hezkuntza sisteman integratu ahal izateko.

Egin beharreko lana:

- Adimen Emozionala eta erregulazio emozionala ikastetxearen proiektu curricularrean integratzeko plana.
- Adimen Emozionala ikastetxeetan integratzeko plan estrategikoak prestatzeko oinarriko lerroak garatzea.

Lan edukiak:

- Adimen Emozionala sistema curricularrean integratzeko proiektua garatzea.
 - o Gauzatutako lan-esperientziak aurkeztea.
 - o Integrazio planak garatzeko lan gidak ezartzea.
 - o Pertsona, lanbide nahiz antolakuntza mailan garapena lortzeko baliagarri izatea.

Ebaluazioa:

Maila honetan hauek dira betebeharreko galdeketa:

- Pretest –a (prestakuntzako esku-hartze prozesua hasi aurretik)
- Postest-a (prestakuntzako esku-hartze prozesua bukatzerakoan)
- Asetasuna (prestakuntzako esku-hartze prozesua bukatzerakoan)
- Erdiegituratutako galdeketa (ikasturtea bukatzerakoan)

- Ikastetxeko ikasleei ebaluazioa – lehen hezkuntzako 6. maila, DBHko 4. maila, Batxilergoko eta heziketa zikloetako 2. maila (ikasturtea bukatzerakoan)
- Parte hartzaileei elkarrizketak (lagin adierazgarria) (ikasturtea bukatzerakoan)

Helburu taldeak:

Gipuzkoako ikastetxeetako zuzendaritza taldeko kideak eta ikastetxe proiektua eta hezkuntza proiektuak garatzeko lanaren ardura duten irakasleak.

Kontuan hartu beharreko alderdiak:

Iraupena: 30 ordu.

Taldeak: 8-10 pertsona.

Tenporalizazioa: Astean hiru orduko bi prestakuntza saio

Metodologia: Ikastetxe proiektu bat garatzeko CASEL gida

GIPUZKOA
IKASKUNTZA
EMOZIONALA
ETA SOZIALA

ERANSKINAK



BALIOZKOTZE TAULA ETA IBILBIDE BERRIA

<i>EREDUA</i>	<i>MAILA</i>	<i>MAILA</i>	<i>MAILA</i>	<i>MAILA</i>
<i>A</i> <i>(jatorrizkoa)</i>	<i>I</i> <i>(sentsibilizazioa)</i>	<i>2</i> <i>(garapena)</i>	<i>3</i> <i>(aplikazioa ikasgelan)</i>	<i>expertise</i>
<i>B</i> <i>(ondorengoa)</i>	<i>I'</i> <i>(sentsibilizazioa+garapena)</i>	<i>2'</i> <i>(aplikazioa ikasgelan)</i>		
<i>C</i> <i>(oraingo egoera)</i>	<i>I</i> <i>(autoerregulazioa)</i>	<i>IIA (aplikazioa ikasgelan)</i> <i>IIB (taldeko erregulazioa)</i>	<i>III</i> <i>(ikastetxe proiektua)</i>	
	<ul style="list-style-type: none"> - <i>1tik I era</i> - <i>2tik II Ara edo IIBra</i> - <i>3tik IIIra</i> - <i>1' tik II Ara edo IIBra</i> - <i>2' tik IIIra</i> - <i>IIB hautazkoa 2' edo 3tik</i> - <i>Beharrezkoa Ia izatea IIA edo IIB egiteko</i> - <i>Beharrezkoa IIA edo IIB izatea III egiteko</i> 			

HEZIKETA PROGRAMAREN EBALUAKETA

ZEINTZUK DIRA EBALUAKETAREN HELBURUAK?

Ikaskuntza Emozionala eta Sozialaren programa barneko ekintzen eraginkortasun maila neurtu. Era berean, programaren puntu indartsuak eta hobetu behar diren arloak ezagutu, etorkizuneko esku-hartze ekintzak hobetu ahal izateko.

Helburu zehatzak: 1) trebatutako kolektiboen gaitasun emozional eta sozialen **aldaketa** ebaluatu, 2) ikaskuntza maila bakoitzarekiko **asebetasuna** ebaluatu, 3) ikasleekiko **inpaktua** ebaluatu, 4) materialak ebaluatu, 5) **Ikastetxeko Proiektuan** programaren ekintzak ze neurritan integratzen diren aztertu eta ikastetxeko proiektuak ze neurritan duen eragina ikasleengan eta hezkuntza komunitatean aztertu.

ZER ESKATZEN DIOGU ZURE IKASTETXEARI?

- **Ebaluaketan parte-hartzea:** trebakuntzaren etapa ezberdinen (aurretik-bitartean-ondoren) inguruan funtsezko informazioa ematea. Funtsean, galdeketak betetzea eskatuko da eta ikastetxeko lagin esanguratsu bati elkarrizketa bat egingo zaio.

ZUEN IKASTETXEARENTZAT ZERGATIK DA GARRANTZITSUA EBALUAKETA PROZESUA?

- Esperientzia aitzindari batean parte hartzea: oso hezkuntza programa gutxi daude, gaitasun sozioemozionalak lantzeaz gain, helburu eta inpaktuaren ebaluaketa bat egiten dutenak.
- Zuen ikastetxean neurtutako aspektuen inguruko emaitzen txosten osoa edukitzea.

ESKU-HARTZE PROGRAMAKO PARTEHARTZAILEEI EBALUAZIOA

EBALUAZIO MOTAK	HELBURUAK	DATUAK JASOTZEKO TEKNIKAK
Emaitzen ebaluazioa	<ul style="list-style-type: none"> • Neurtu zein mailatan aldatu diren gaitasun sozioemozionalak, prestakuntza ekintzarekin zuzenean erlazionatuta daudenak: <ul style="list-style-type: none"> - Hautemandako AE, banakakoa - Lan giroa - Enpatia - Bizitzarekiko gogobetetzea 	Estandarizatutako galdeketak (aurrekoa eta ondorengoa)
Asebetetzearen ebaluazioa	<ul style="list-style-type: none"> • Ezagutu programarekin eta jasotako prestakuntzarekin dagoen gogobetetze maila 	Asebetetze inkesta
Inplementazioaren ebaluazioa	<ul style="list-style-type: none"> • Ezagutu materialen balorazio orokorra, erabilera eta ulermena • Ezagutu inplementazio maila (programarena nahiz ikasgelan duen aplikazioarena) 	Erdiegituratutako galdeketa
Eraginaren ebaluazioa	<ul style="list-style-type: none"> • Ezagutu programak ikasleengan, irakasleengan eta ikastetxean orokorrean izan duen eraginaren pertzepzioa. 	Elkarrizketa

IKASLEGOARI EBALUAZIOA

EBALUAZIO MOTAK	HELBURUAK	DATUAK JASOTZEKO TEKNIKAK
Eraginaren ebaluazioa	<p>Egiaztatu programak eraginik izan duen gaitasun emozional eta sozialetan, aldi berean, aztertuz beste oinarrizko emaitza batzuetan izan duen ekarpena:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Hautemandako AE, banakakoa • Hautemandako AE, taldekoa • Afektibitatea • Autokontzeptua • Enpatia • Moldaerazko jokaera <p>etab</p>	Estandarizatutako galdeketak